




Kanalak

Komunikazio kanalak

Gure balio proposamena bezeroari iristarazteko modua da. Gure balio proposamena bezeroei iristarazteko hainbat modu ditugu, alde batetik web horri bat izango dugu, aplikazio bat eta hainbat sare sozial. Bertatik gure balio proposamena ahalik eta errazen bezeroei arazorik gabe iristea da, gure proiektua erraz irakurri eta ulertu dezaten.

- **Web orria/app:** Web orrian eta aplikazioan azalduko dugu nor garen eta zergatik aukeratu behar gaituzten eta honetaz aparte, zerbitzua bezeroek eros dezaten erabiliko genuke.



- **Sare sozialak (tiktok, instagram, gmail):**

Tik Tok eta instagram erabiliko dugu, bideo publizitarioak egiteko, gure bezeroak jende gaztea da, eta eragina izateko dopamina sortzen duten bideo epikoak egingo ditugu. Gmail-a berriz, behin aplikazioan erregistratu, gure enpresari buruzko publizitatea irtsiko zaie.

- **Lokalean informazioa eta publizitatea:** Gure lokalaren sarreran eta honen inguruan, hainbat kartel publizitario jarriko ditugu gure berri egiteko. Denboran aurrerago Donostia osotik zabalduko ditugu kartel hauek gure izena geroz eta jende gehiagok jakin dezan.



Banaketa kanalak

Gure enpresak ez ditu banaketa kanal fisikorik izango honek ez duelako banaketa hauen beharrik funtzionatzeko. Gure enpresaren salmentak online funtzionatuko du eta zerbitzua bezeroei fisikoei eskainiko diegu. Ondorioz, webgunea eta App-a izango dira gure banaketa kanalak.



Salmenta kanalak

Gure produktua saltzeko modua izango da eta **hiru modutan** sailkatuko dugu:

- **Web orria:** gure kapsulak erreserbatzeko lehen metodoa web-orria izango da. Hemen zehaztuko da gure zerbitzuaren prezioa eta kapsularen erabileraren denbora. Bi hauen arabera ordainduko du bezeroak txartela bitartez eta honi kodigo bat emango zaio kapsulara sartu ahal izateko.



- **Aplikazioa:** Google play eta app stor-etik deskargatu ahaliko da gure aplikazio berria. Bertan erreserbak egin ahaliko dira web-orrian bezala. Aplikazioan, kapsulak erreserbatzeaz (normalak edo premiumak) aparte, informazio guztia aurkitu ahal izango dute. Balio proposamena bertan edukiko dute, 24 orduko zerbitzu bat edozer zalantza edo arazo galdetzeko eta gure informazio basikoa (historia, nola funtzionatzen duen denak, zertarako egiten dugun...) bertan izango dute.



- **Bitartekaria Booking:** Gure zerbitzuak Booking web-orrian egongo dira promozionatuta, beraiek sortzen dizkiguten irabaziaren zati baten truke.

Salmenta ondorengoa

Edozer arazo gertatzen bada, gure aplikazioa edo web orria izango dituzte bezeroek kontaktatzeko metodoak. Bi hautean, telefono zenbaki bat egongo da 24 orduko zerbitzua eskaintzen duena bezeroek edozer arazo edo duda baldin badute arazorik gabe eta modu errazean kontsulta dezaten. Beste modu bat izango litzateke gure gmailera mezu bat bidaltzea eta ahalik eta azkarren erantzungo genuke. Azkenik, sare sozialetatik gurekin kontaktuan jartzea izango zen azken aukera (instagram, X...).



Asebetetze inkesta:

Kupulatik ateratzean, hau da, zure lo egiteko denbora amaitzean, aplikaziotik edo web orritik balorazio inkesta bat iritsiko zaio bezeroari automatikoki. Honetan, bezeroak produktua baloratuko du eta 1-10erako puntuazioa emango dio. Inkesta honetan hurrengo galderak egingo ditugu:

- Zein izan da zuen esperientzia?
- Zergatik aukeratu gaituzue?
- Zer hobetuko zenuke?
- Errepikatuko ahal zenuke esperientzia hau?
- Gomendatuko zenioke ezagunei zerbitzua?

